

4/11

irizpena

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUR ETA
NERABEEN ARRETA ETA BABESERAKO UDAL
ETA LURRALDEKO GIZARTE ZERBITZUETAN
ARRISKUKO EGOEREN LARRITASUNA
BALORATZEKO TRESNA ONARTZEN DUEN
Dekretu Proiektuari Buruzkoa (BALORA)

Bilbon, 2011ko martxoak 9



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euzkadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetako Batzordea



*i*rizpena **4/11**

I. AURREKARIAK

2011. urteko otsailaren 4an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren idazkia sartu zen. Beraren bidez, txostena eskatu zuten *Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeen arreta eta babeserako udal eta lurraldeko gizarte zerbitzuetan arriskuko egoeren larritasuna baloratzeko tresna onartzen duen Dekretu Proiektuari buruz*, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretu Proiektu honek, *Haur eta Nerabeen Arreta eta Babesari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen aginduak* betez, oinarritzko gizarte zerbitzuek eta lurraldeko zerbitzu espezializatuek haur eta nerabeen arrisku eta babesgabeziako egoerak eta bere larritasuna erabakitzekeo tresna tekniko balidatua ezartzeko xedea du. Halaber, haur eta nerabeen arreta eta babeseko gizarte zerbitzuen profesionalen lana errazteko, esku hartzeko prozesua arintzeko eta udal eta lurraldeko esparruen artean koordinazio hobea sustatzeko helburuak ere bilatzen ditu, ume eta nerabe hauei eskainitako arretaren hobekuntzan lagunduta.

2011ko martxoaren 1ean Gizarte Garapeneko Batzordea lan-saioan bildu zen Irizpen Aurreproiektuaren proposamena eztabaidatzeko, eta erabaki zuen 2011ko martxoaren 9ko Euskadiko EGABren Osoko Bilkurari aurkezten zaion hurrengo Irizpen Proiektua onartzea. Osoko Bilkurak aho batez onartzen du.

II. EDUKIA

Kontsultara aurkeztutako Dekretu Proiektuaren testuak Hitzaurrea, Artikulu bakar bat eta Azken Xedapen bat ditu.

Hitzaurrea

Dekretu Proiektuaren Hitzaurreak estatu eta autonomiako legeriak ume

edo nerabe bati eragiten dioten arrisku eta babesgabeziako egoeretan esku hartzeko ezarritako betebeharrak aipatzen du, aurrenekoak ume edo nerabearen garapen pertsonal edo soziala kaltetzen duten egoeratzat hartuta, legearen ministerioak tutoretza onartu beharrik gabe, eta babesgabeziakoak, berriz, legetan adin txikikoen zaintzarako ezarritako babesteko betebeharrak betetzen ez direnean edo bere betetzea desegoki edo ezinezkoa denean gertatzen diren egoeratzat hartuta, hauek beharrezko laguntza moral edo materialik gabe gelditzen direnean.

Halaber, egoeraren larritasunaren arabera esku hartu beharreko gizarte zerbitzuak ere aipatzen ditu, oinarritzko gizarte zerbitzuak arriskuko egoeretan, lurraldeko zerbitzu espezializatuak babesgabezia larriaren zantzuak dauden egoeretan.

4/11 *i*

Azkenik, Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 49. artikulua aipatzen du. Honek xedatzen du oinarritzko zerbitzuek eta lurraldeko zerbitzu espezializatuak arrisku eta babesgabeziako egoerak zehaztuko dituztela horretarako baliozkotutako tresna teknikoak aplikatuz, Lehenengo Azken Xedapenean aurreikusitako terminoetan. Bere existentzia eta larritasuna baloratzeko, hain zuzen ere, dekretuak ezarritako BALORA tresna hartzen da. Honek, gainera, haur eta nerabeen arreta eta babeserako gizarte zerbitzuen profesionalen lana erraztu, esku hartzeko prozesua arindu eta udal eta lurraldeko esparruen arteko koordinazio hobea sustatzeko ere balio izango du, ume hauei eskainitako arretaren kalitatea hobetzen lagunduta.

Xedapenen Atala

Artikulu bakarrak arrisku eta babesgabeziako egoerak baloratzeko tresna (BALORA) onartzen du. Bere testua eranskinean jasota dago eta EAEko haur eta nerabeen arreta eta babeserako udal eta lurraldeko gizarte zerbitzuek nahitaez erabili beharko dute.

Azken xedapenak ezartzen du Dekretua indarrean sartuko dela EHAAAn argitaratu ondoko egunean.

III. GOGOETA OROKORRAK

Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako otsailaren 18ko 3/2005 Legeak EAEn lehendabiziko aldiz heldu zio haur eta nerabeen arreta eta babesaren erregulazio integralari, ordura arte euskal legegilearen aldetik kezka zatikatu eta partzelatuaren xede izana baitzen.

Ikuspegi berri hau maila konparatuan dauden planteamenduekin bat dator, 1989. urteko Umearen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak babestuta. Hauek ume eta nerabearen figurari protagonismo sozial handiagoa ematen diote eta, korrelatiboki, aitorten zabalagoa eskubideen subjektu gisa, babesarena dituen eskubideetako bat izanik.

4/11 

Horrela, *Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako euskal Legeak* testu bakarrean haur eta nerabeen alde aitortutako oinarrizko eskubide guztiak biltzen ditu, eta legez ezartzen ditu administrazioko jarduketaren printzipio zuzentzaileak horien benetako ariketaren defentsa eta sustapenean. Testuinguru honetan, adin txikikoaren eskubideen babesa arau-esparruaren funtsezko osagaia da eta, horrekin batera, arrisku eta babesgabeziako egoeretako administrazioaren ekintza babeslea, egoera hauetan dauden adin txikikoen garapen integrala bermatzera eta familiarizazioa normalizatua sustatzera zuzenduta, jarduteko jarraibideak eta lotutako erakunde juridikoak araupetuta: familia edo egoitzako harrera, eta adopzioa.

Arrisku eta babesgabeziako egoerak dauden zehaztea eta hauen larritasuna baloratzea funtsezkoak dira kasu hauetan administrazioaren ekintza babeslea zuzen egiteko, eta *Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako Legeak* berak, bere 49.2 artikuluan, horretarako baliozkotutako tresna teknikoak aplikatzea aurreikusten du. Halaber, Legearen Lehenengo Azken Xedapenak ere baloratzeko tresnak eta arrisku eta babesgabeziako egoeretan aplikatu beharreko protokoloak egin eta onartzea ere aurreikusten du.

Ondorioz, Euskadiko EGABk Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak BALORA tresna onartzeko hartutako arau-ekimena positiboki baloratzen du. Ho-

rrela, Haur eta Nerabeen Arreta eta Babeserako Legearen legezko agindua betetzen du eta beharrezko eginkizuna burutzea eragiten du tresna ematen baitu ume edo nerabe bat murgilduta egon daitekeen arrisku eta babesgabeziako egoerak antzemateko, eta horien larritasuna baloratzeko, modu egituratuan eta mailen arabera: babesik eza, arrisku arin edo moderatuak edo larriak eta babesgabezia, eskudun administrazioak egin beharreko urratsak finkatuta.

Zentzu horretan, eta bukatzeko, egokia da azpimarratzea EAEko erakunde bakoitzeko zerbitzuen artean koordinazioa egotea ezinbestekoa dela haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko bere jardunean, eta BALORA tresnak, helburuen artean, sustatzea ere duela. Tresna hau aurreikusten da udal gizarte zerbitzuek zein lurraldeko gizarte zerbitzuek aplikatzeko, bakoitzak bere jardun-esparruan. Lehenengoek arriskuko egoeran dauden ume eta nerabeen harrera, ikerketa, balorazio eta orientazioan, larriak diren umeen babesik ezaren kasuak lurraldeko zerbitzu espezializatuari desbideratuta, eskudunak babesik ezeko kasu larrien harrera, ikerketa, balorazioan. Era berean, hauek arrisku arin edo moderatukoak direla jotzen dituzten kasuak udal gizarte zerbitzuei igorri beharko dizkiete, bi zerbitzu hauen baterako lankidetzeta eta jarduera sistema zuzen funtzionatzeko funtsezkoa dela agerian utzita.

Tresna honek, halaber, EAEko haur eta nerabeen arreta eta babeserako gizarte zerbitzuen profesionalen lana erraztea ere ahalbidetuko du, kontzeptuen definizio hobea eskainiz, ondorengo bere tratamenduari begira, esku hartzeko prozesua arintzea ahalbidetuta eta baliabide materialen eta giza baliabideen koordinazio hobea sustatuta.

IV. ONDORIOAK

Euskadiko EGABk egokitzat jotzen du kontsultaren xede den Dekretu Proiektuaren izapideak egitea.

Bilbon, 2011. urteko martxoaren 9an.

O.E. Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



**CES
EGAB**

Consejo Económico
y Social Vasco

Euzko Ekonomia eta Gizarte
Arloetarako Batzordea

©Argitalpena: Euzkadiko Ekonomia eta Gizarte Arloetarako Batzordea
Gran Via 81, 7. solairua
48011 Bilbao, Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: Cuatrobaras Comunicación

Inprenta: Inprenta Gestingraf

Legis Gordailua: BI-701-11